



Euskal-estatubatuar sagardo bat berezitu da II. Sagardo Forum Nazioarteko Lehiaketara aurkeztutako 190 sagardoen artean

📅 Aza 25, 2019 🌐 Lehiaketak, Sagardoa 💬 0 comments



Sagardo Forum Nazioarteko Sagardo Lehiaketako sari banaketa ospatu da gaur goizean Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian. **Mundu osoko dastatzaile ospetsuek** (somelierrak, BJCP garagardo programa amerikarrek eta ardo nahiz garagardoaren sektoreko kazetari eta blogerrak) 9 kategoriatan sailkatutako 190 sagardoak dastatu ostean, **140** domina banatu dira: **47 urrezko domina**, **62 zilarrezko domina** eta **31 brontzezko domina**. Horien artean, lehiaketako “Best of show” saria “Maiti fresh” euskal-estatubatuar zaporetako sagardoarentzat izan da, Egoitz Zapiain eta Vander Mill sagardotegiko Paul Vander sagardogileen arteko kolaborazioa.

Orotara **14 herrialdetako** sagardoak aurkeztu dira lehiaketara: Espainia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Herbehereak, Polonia, Eslovakia, Norvegia, Suedia, Uruguai, Txekia, Luxenburgo eta Estatu Batuak.

Hona hemen banatu diren **sariak**:

Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa

– Dominak: 8 urre (Zapiain sagardotegia 3, Alorrenea sagardotegia 2, Petrítegi sagardotegia 1, Zelaia sagardotegia 1, Isastegi sagardotegia 1), 13 zilar (Gurutzeta sagardotegia 2, Oiharte sagardotegia 2, Isastegi sagardotegia 2, Zelaia sagardotegia 2, Gartziategi sagardotegia 1, Paul Vander- Egoitz Zapiain 1, Izeta sagardotegia 1, Araeta sagardotegia 1, Iturriotz baserria, 1) eta 4 brontze (Aburuza sagardotegia 1, Araeta sagardotegia 1, Gartziategi sagardotegia 1, Izeta sagardotegia 1).

– Irabazlea: Zapiain sagardoa (Euskal Herria) – Zapiain sagardoa Lote I

– Sari banatzailea: Xabier Urdangarin, Astigarragako alkatea

Sagardo natural asturiarra

- Dominak: 3 urre, 4 zilar eta 4 brontze
- Irabazlea: Sidra Piñera (Asturias) – Sidra Piñera
- Sari banatzailea: Eduardo Coto, Guerrilla Imports-eko gerentea eta Sagardo Forum Nazioarteko Lehiaketaren idazkaritza teknikoa

Sagardo tradizional frantsesa

- Dominak: 2 urre, 3 zilar eta brontze 1
- Irabazlea: Cidrerie Menez Brug (Frantzia) – AOP Cornouille
- Sari banatzailea: Agurtzane Andueza, Gipuzkoako Foru Andundiko Fraisoro Laborategiko Zuzendaria

Sagardo Tradizional Ingelesa

- Dominak: urre 1, 3 zilar eta 6 brontze
- Irabazlea: Pilton Cider (Erresuma Batua) – Pilton Solstice
- Sari banatzailea: Iker Goiria, Gipuzkoako Foru Andundiko Turismo Zuzendaria

Sagardo berriak

- Dominak: 3 urre, 12 zilar eta 9 brontze
- Irabazlea: Ulvik Frukt & Cideri (Norvegia) – Gravenstein
- Sari banatzailea: Xabier Arruti, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Lurralde Oreka Zuzendaria

“Premium” Sagardo Aparduna

- Dominak: 2 urre, 5 zilar eta 8 brontze
- Irabazlea: Aakre Gard (Norvegia) – Edel Cuvee Park
- Sari banatzailea: Agurtzane Andueza, Gipuzkoako Foru Andundiko Fraisoro Laborategiko Zuzendaria

Apfelwein

- Dominak: urre 1, 5 zilar eta 2 brontze
- Irabazlea: Jens Becker (Alemania) – JB Streuobst
- Sari banatzailea: Eduardo Coto, Guerrilla Imports-eko gerentea eta Sagardo Forum Nazioarteko Lehiaketaren idazkaritza teknikoa

Zaporetako sagardoa eta Udardoa

- Dominak: 7 urre, 12 zilar eta 12 brontze
- Irabazlea: Vander Mill Basque Colaboracion (Estatu Batuak) – Maiti fresh
- Sari banatzailea: : Iker Goiria, Gipuzkoako Foru Andundiko Turismo Zuzendaria

Izotzezko sagardoa

- Dominak: 4 urre, 5 zilar eta brontze 1
- Irabazlea: Zapiain Sagardotegia (Euskal Herria) – Bizi-Goxo 2015
- Sari banatzailea: Xabier Urdangarin, Astigarragako alkatea

Kategoria bakoitzeko banatutako sari hauetaz gain, Vander Mill Basque Colaboracion (Euskal Herria-Estatu Batuak) “Maiti fresh” sagardoak **“Best of show” saria** lortu du

lehiaketako bereziena izateagatik. Xabier Arruti, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Lurralde Oreka Zuzendariak eman dio saria Egoitz Zapiaini.

Bestalde, epaimahaiak **kategoriatik kanpoko ohorezko saria** eman die Sidra Panizales-en (Asturias) "Viesk" eta Llagar Castañon-en (Asturias) Roxmut sagardoei.

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa III. Sagardo Forum ekitaldiaren barruan ospatu da. Bi urtean behin aurrera eramaten den nazioarteko hitzordu hau Sagardoaren Lurraldeak antolatzen du beste hainbat eragileren lankidetzari esker, besteak beste: Guerrilla Imports-eko Eduardo Coto eta Antonio Roa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fraisoro Laborategia, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapena eta Ciderzale. Era berean, laguntza ekonomikoa jaso du:

- Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Turismo Saila, Eusko Jaurlaritzako Turismo Saila, Hazi Fundazioa eta Astigarragako Udala.
- Laguntzaileak: Sagardo Mahaia eta Priorcork.

[Argazkiak eskuratu](#)

Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

[Agenda](#)

[Argitalpenak](#)

[Azokak](#)

[Berriak](#)

[Ekitaldiak](#)

[Erakusketak](#)

[Esperientziak](#)

[Formazioa](#)

[Gastronomia](#)

[Historia](#)

[Kultura](#)

[Lehiaketak](#)

[Museoak](#)

[Sagardoa](#)

[Sagardotegiak](#)

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea

ZATOZ ETA GOZATU



el territorio de la uva

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Sagardo Forum

Jardunaldi teknikoak

Nazioarteko Sagardo Lehiaketa

Nazioarteko Sagardo Azoka

Izen ematea

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak

Talde teknikoa, hizlariak eta epaileak

Prentsa bulegoa

Aurreko edizioak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)